

Asier Romero, Israel Alonso,  
Ana Urrutia, Monike Gezuraga,  
Naiara Berasategi y  
Nahia Idoiaga (eds.)

# Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria

La experiencia de la Facultad de Educación de Bilbao, UPV/EHU (2011-2021)

Estructura modular, metodologías  
activas y compromiso social en  
innovación educativa universitaria

La experiencia de la Facultad de Educación de  
Bilbao, UPV/EHU (2011-2021)

## **Comité científico**

Juan Abasolo. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Rebeca-Kerstin Alonso. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Aintzane Cabo. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Teresa Campos. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Amaia Eiguren. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Nahia Eguskiza. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Iratxe Esparza. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Aintzane Etxebarria. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Naiara Ozamiz. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Maitane Picaza. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Iratxe Redondo. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Ainara Romero. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)  
Miriam Ureta. Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)

Asier Romero, Israel Alonso, Ana Urrutia,  
Monike Gezuraga, Naiara Berasategi  
y Nahia Idoiaga  
(Eds.)

Estructura modular,  
metodologías activas y  
compromiso social en  
innovación educativa  
universitaria

La experiencia de la Facultad  
de Educación de Bilbao,  
UPV/EHU (2011-2021)

Colección Universidad

Título: *Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria. La experiencia de la Facultad de Educación de Bilbao, UPV/EHU (2011-2021)*

Este libro ha contado con el apoyo económico de:



Primera edición: marzo de 2023

© Asier Romero, Israel Alonso, Ana Urrutia, Monike Gezuraga, Naiara Berasategi, Nahia Idioiaga (eds.)

© De esta edición:

Ediciones OCTAEDRO, S.L.  
C/ Bailén, 5 – 08010 Barcelona  
Tel.: 93 246 40 02  
[octaedro@octaedro.com](mailto:octaedro@octaedro.com)  
[www.octaedro.com](http://www.octaedro.com)

Cualquier forma de reproducción, distribución, comunicación pública o transformación de esta obra solo puede ser realizada con la autorización de sus titulares, salvo excepción prevista por la ley. Diríjase a CEDRO (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)) si necesita fotocopiar o escanear algún fragmento de esta obra.

ISBN: 978-84-19506-37-5

Depósito legal: B 8207-2023

Maquetación: Fotocomposición gama, sl  
Diseño y producción: Octaedro Editorial

Impresión: Prodigitalk

Impreso en España - *Printed in Spain*

# Sumario

Prólogo .....	11
URTZA GARAY RUÍZ; ASIER ROMERO ANDONEGI	
BLOQUE I. INNOVACIONES EDUCATIVAS EN LA ESTRUCTURA MODULAR	
1. Gizarte Hezkuntza Graduko bigarren moduluko ikasle eta irakasle taldearen ebaluazioen azterketa: egungo kezkak eta aurrera begirako erronkak .....	15
SAIOA BILBAO URQUIDI; AMAIA EIGUREN MUNITIS; KARMELE ARTETXE SANCHEZ	
2. El módulo 2 de Educación Primaria: realidades y necesidades desde el análisis documental .....	27
DAVID PASTOR ANDRÉS; JON ANASAGASTI; NAIARA BILBAO	
3. Una experiencia de innovación educativa en Educación Superior basada en casos reales desde una mirada de género y exclusión social .....	39
MAITE MUÑOZ DE MORALES; LORENZO VICARIO	
4. UBE: Hezkuntza komunitatea elkareraginean .....	49
MIRIAM PEÑA-ZABALA; NAGORE MARTINEZ-MERINO; MIKEL IRUSKIETA	

5. Dinámicas de trabajo intergrupales como estrategia para la construcción de conocimiento. Un acercamiento desde el trabajo interdisciplinar modular .....	61
REGINA GUERRA GUEZURAGA; MAIDER HUARTE ABASOLO; JON KORTAZAR-BILLELABEITIA	
6. Sustainable development goals in the English classroom: tell me a different story.....	71
IRENE BALZA; AMAIA AGUIRREGOITIA MARTÍNEZ; MAITENA DUHALDE DE SERRA; PAULO KORTAZAR; RUTH MILLA	
7. El rol del profesorado novel en la tutorización de trabajos modulares con metodologías activas. Dificultades, retos y alternativas .....	81
MIRIAM URETA; LORENA RELLOSO; ION ANDONI DEL AMO; ISRAEL ALONSO	
8. ¿Qué objetivos de desarrollo sostenible elige el profesorado de Educación Infantil en formación para trabajar mediante actividades fuera del aula? .....	91
M. ARRITOKIETA ORTUZAR-IRAGORRI; GLORIA RODRÍGUEZ-LOINAZ	

## BLOQUE II. INNOVACIONES EN LAS ASIGNATURAS

9. El uso de dibujos, maquetas y <i>role-play</i> como estrategias innovadoras para desarrollar el pensamiento sistémico en torno al sistema digestivo .	105
ARAITZ USKOLOA IBARLUZEA; TERESA ZAMALLOA ECHEVERRÍA; AINARA ACHURRA AHUMADA	
10. La <i>performance</i> musical: un medio para integrar aprendizajes en Educación Primaria.....	117
MIREN JOSU ARRIOLABENGOA; ELI ARABAOLAZA; ANA URRUTIA; REBECA-KERSTIN ALONSO	
11. IDAT: talde laneko idatzian banakako ekarpenei begira.....	127
JUAN ABASOLO ISASA; NAIA EGUSKIZA SÁNCHEZ	

12. Competencia digital y espacios <i>maker</i> : construir pensamiento en el diseño de productos asociados a retos de aprendizaje .....	141
AINARA ROMERO ANDONEGUI; URTZA GARAY RUIZ; ENEKO TEJADA GARITANO	
<b>BLOQUE III. INNOVACIONES EN TFG, TRANSFERENCIA Y COLABORACIÓN CON EL ENTORNO</b>	
13. De la universidad a la Educación Secundaria. El poder de la divulgación científica.....	155
MAITANE PICAZA; NAIARA OZAMIZ-ETXEBARRIA; NAIARA BERASATEGI; MARÍA DOSIL-SANTAMARIA.	
14. Formación interdisciplinar con alumnado universitario para una educación de calidad que promueva la mejora y transformación social .....	165
IGONE ARÓSTEGUI BARANDICA; JOANA JAUREGUÍZAR ALBONIGA-MAYOR; IRATXE REDONDO RODRIGUEZ; NAGORE GUERRA BILBAO; ALAITZ AIZPURUA SAINZ; ANA ARRIBILLAGA IRIARTE	
15. Haur eta gazte literatura eta garapen iraunkorrerako helburuak .....	175
MAITE APERRIBAY-BERMEJO; IRATXE ESPARZA MARTIN	
16. GrALa Plazara! Jendarteaarekin konprometitutako GrALak .....	187
TERESA CAMPOS-LOPEZ; AINTZANE CABO BILBAO; EDURNE ESPILLA ETXEBARRIA; MONIKE GEZURAGA AMUNDARAIN	
17. Creación del proyecto de radio comunitaria ODSirratia para la transformación ecosocial .....	201
ITZIAR KEREXETA BRAZAL; JOSÉ RAMÓN DÍEZ LÓPEZ; UNAI ORTEGA LASUEN; LEIRE ETXEZARRAGA ESTANKONA	
18. Educación Infantil 3: cómo cambiar la concepción sobre la sostenibilidad del alumnado mediante trabajos interdisciplinares .....	211
NAHIA IDOIAGA MONDRAGON; ION YARRITU CORRALES; INGE AXPE SAEZ	

19. STEAM: trabajando las competencias clave desde la equidad a través del arte colaborativo..... 223  
ARANTZAZU LÓPEZ DE LA SERNA; NAIARA BILBAO QUINTANA;  
JAVIER PORTILLO BERASALUZE
20. Los trabajos finales tutelados como herramienta de avance en la protección de la infancia: una experiencia del posgrado «Deporte, Educación y Convivencia» ..... 233  
MARI MAR BOILLOS PEREIRA; ASIER ROMERO ANDONEGI; IÑAKI ALONSO ROMERO

# Prólogo

URTZA GARAY Ruíz  
Decana de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)

ASIER ROMERO ANDONEGI  
Exdecano de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)

La realización en nuestra Facultad del Congreso Internacional de Innovación Educativa en Educación Superior los días 6, 7 y 8 de abril de 2022 nos dio la oportunidad de celebrar el décimo aniversario de la implantación de un modelo de innovación docente interdisciplinar e integrado en los títulos de Educación de las tres facultades de Educación de la UPV/EHU.

Este proyecto educativo comenzó su andadura con esperanza e ilusión, pero también con las necesidades de abrir nuevas formas de entender la formación universitaria de grado, ya que el primer gran reto partía de la propia singularidad de una estructura modular del plan de estudios, de la que derivaba la creación de estructuras de coordinación del profesorado estables con el objetivo de implementar cada uno de los proyectos interdisciplinares en los módulos. Un esfuerzo inicial que se ha ido consolidando y adaptando, y superando retos e inquietudes derivadas de su carácter innovador y que tanto docentes como el alumnado han presentado.

Con todo, actualmente, el proyecto es una realidad que singulariza las titulaciones de Educación de las tres facultades en nuestra universidad. En esta línea argumental, en 2021 el Servicio de Asesoramiento Educativo UPV/EHU concedió a este proyecto la categoría de institucional, solo reservada a aquellos proyectos de innovación educativa con una trayectoria consolidada y un carácter transdisciplinar, implicando con ello a diversas disciplinas, titulaciones y agentes externos de la Universidad. Ade-

más, este reconocimiento institucional se ha visto nuevamente reforzado al quedar finalista este proyecto docente entre los tres mejores proyectos de innovación reconocidos por la agencia EUSKALIT presentados en el año 2022.

En este contexto, que podemos definir como exitoso, se reúnen en esta monografía una serie de trabajos revisados por pares que ejemplifican las líneas maestras de este proyecto de innovación docente, cuyos objetivos son: 1) difundir las diferentes innovaciones educativas impulsadas dentro y fuera de los módulos en las Facultades de Educación de la UPV/EHU; 2) poner en valor la colaboración entre la Universidad y los agentes socioeducativos en la innovación social y educativa basada en una estructura modular e interdisciplinares.

Por todo ello, es un verdadero orgullo y placer prologar esta monografía, que, lejos de caracterizar singularidades docentes, trata de poner en valor un proyecto de reconocido prestigio y que, en su décimo aniversario, ya es una realidad que caracteriza el desarrollo y un proceso de enseñanza-aprendizaje que se ha consolidado como elemento identitario para los grados de Educación de la UPV/EHU. Creemos que este libro conforma una iniciativa de presentar y promover un diálogo dentro de la comunidad educativa en relación con la necesidad de adaptar la educación universitaria actual y con el fin de afrontar respuestas interdisciplinares a retos nuevos y complejos que nos presenta la sociedad presente y futura. Además de servir de inspiración a todas aquellas facultades de Educación y agentes que contribuyen a desarrollar una educación universitaria de calidad.

# BLOQUE I. INNOVACIONES EDUCATIVAS EN LA ESTRUCTURA MODULAR

# Gizarte Hezkuntza Graduko bigarren moduluko ikasle eta irakasle taldearen ebaluazioen azterketa: egungo kezkak eta aurrera begirako erronkak

SAIOA BILBAO URQUIDI

AMAIÀ FIGUREN MUNITIS

KARMELE ARTETXE SANCHEZ

Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU)

## Sarrera

Artikulu honetan UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatean eskaintzen den Gizarte Hezkuntza Graduaren bigarren moduluaren hamaika urteko ibilbidea aztertzen da. Horretarako lehenik eta behin aipatutako graduaren eta moduluaren ezarpena azaltzen da, eta ondoren moduluaren parte hartu duten ikasle eta irakasleen lekukotza desberdinak ikertuz, moduluko egungo kezkak eta aurrera begirako erronkak planteatzen dira.

Gizarte Hezkuntzako diplomatura 1995-1996 ikasturtean abiatu zen UPV/EHUko Bizkaiko Campusean. Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren baitan, 2010-2011. ikasturtean Gizarte Hezkuntza diplomaturak gradu egitura hartu zuen. Ordutik gradua 4 urtetan gauzatzen da (60 kreditu bakoitzeko) eta guztira 240 kredituk (ECTS) osatzen dute. Gipuzkoako Campusean Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean aipatutako gradua ikasteko aukera ere badago. Kasu honetan lehen eta bigarren mailako irakasgaiak eta moduluak Gizarte Hezkuntza zein Pedagogia graduko ikasleek konpartitzen dituzte.

Diplomaturatik gradurako ikasketa plangintzaren diseinuan, unibertsitateko batzordean parte hartu zuen Gizaberrik-Euskadi-

ko Gizarte Hezitzailen Elkarteak (1995. urtean sortua) egun Gizarte Hezitzailen Elkargoa. López i Zagirre eta Quetglas-en (2014) arabera, nahiko gertaera ez ohikoa izan zen, Spainiako beste unibertsitateetan halako lotura organikorik ez zelako eraiki alor akademiko eta profesionalaren artean (Alonso, 2015; Amez *et al.*, 2008). Hortaz, UPV/EHU gradua bereziki sortu zen Gizar-te Hezkuntzaren errealtitatearekin eta esparru profesionalean zeuden erronkei erantzuteko. Horregatik graduauan hainbat testuingurutan gizarte eta hezkuntzaren arloan esku hartzeko prozesuak aztertzen, ebaluatzen eta diseinatzen dira, nola taldeentzat, hala banakoentzat, eta berebiziko arreta eskainiz premia handienak dituzten pertsonei edo gizartean baztertuak izateko arriskuan daudenei. Era berean, behar handiena duten pertso-nen zein kolektiboen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko beharrezkoak diren tresnak lantzen dira. Beraz, ikasleek helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa dute gizarte hezkuntzaren esparru desberdinakin kontaktu zuzena izatea eta horregatik hain zuzen ere, 2010-2011. ikasturtean graduaren egitura berria abiatu zene-tik, irakasgaiak modu isolatuan ez lantzeko, ikasturte guztieta-n modulu-egitura bat ezarri zen eta modulu bakoitzean ikasleek Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) bati aurre egin behar diote, irakasgai bakoitzaren % 15eko lan karga suposatzen due-na (Arbizu *et al.*, 2012). MDJren bidez, ikasleei arazo erreal des-berdinak proposatzen zaizkie. Modulu horiek lauhilabetea osa-tzen duten irakasgaietako irakas-leek moduluko irakasle taldea. Irakasgaien eta irakasleen arteko koordinazioa bermatzeko, modulu bakoitzean koordinatzaile bat izendatzen da. Modulu guztietako koordinatzaileek *Koogizarte* lan-batzordearen parte dira tituluaren koordinatzaile, ikas-leen, administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZP) eta ikaste-txeko dekanotza-taldearen ordezkariekin batera. Lan-batzorde honen helburua graduaren gertatzen diren aldaketa, berrikunta eta hausnarketak modu koordinatu eta bateratuan gauzatzea da. Hartara, gizarte hezkuntza lanbidearekiko hurbiltasuna berma-tzen da ikasleek profesionaltasunaren bidean kasu errealen gai-neko gaitasunak eskura ditzaten hausnarketa prozesuen bidez.

Orotara zazpi moduluk osatzen dute UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gizarte Hezkuntzako Gradua, bi ikastur-te bakoitzeko, azken ikasturtean izan ezik, bakarra baitago. Gure artikulu honetan aztertuko dugu bigarren moduluaren (1. ikas-

turtea, 2. lauhilekoa) ibilbidea, arreta berezia jarriz, ikasleek eta irakasleek urtero egindako moduluko ebaluazioetan, horregatik segidan bigarren modulua zertan datzan azalduko da.

Bigarren moduluari «Hezkuntza Lanbideak» deritza eta hain zuzen ere, modulu honekin lotutako MDJa gai zentral horrekin lotuta dago eta ikasleen ondoko gaitasun hauek garatzea biltzen du:

1. Hezkuntza arloko profesionalen jarduera-eremu desberdinako gizarte eta hezkuntzako ekintzak interpretatzeko orduan argudio hezigarriak lantza.
2. Hezitzairearen oinarrizko ezaugarriak hezkuntza arloko lanbideekin eta lanbide horiek egun duten garapenarekin erlazionatzea.
3. Giza eskubideekin, genero ikuspegiarekin eta erantzukizun profesionalarekin lotutako printzipio etiko eta deontologikotan oinarritutako hezkuntza-iritzia sortzea.
4. Komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzea eta maneiatzea.
5. Ideiak era antolatu batetan adieraztea, komunikazioaren printzipioak eta osagaiak erabiliz..
6. Idatzizko dokumentuak egitea, teoria zientifiko hezitzaleetan oinarritura dauden ideiak aipatuz eta egitura eta forma aldetik, idazkera akademikoaren arauak jarraituz.
7. Ikasketarekin lotutako jarduera eta egitekoei dagokienez, jarrera aktibo eta erantzulea erakustea.
8. Taldea lanean zentratzea, lanerako denbora erregulatzea eta atazara mugatzea.

Aipatutako zortzi gaitasunak eskuratzeko, irakasle taldeak irakaskuntza-ikaskuntza metodologia aktiboen aldeko apustua egin zuen, zehazki Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza metodologia (aurrerantzean, AOI). Metodologia honetan arazo bat zehatz eta erreala batetik abiatuta, ikasleek, taldeka lan eginez, eta talde barruan modu kooperatiboan jardunez, irakasle taldeak planteatutako problema aztertu eta irtenbidea topatu behar dute (Restrepo, 2005). Arazoaren analisi zein irtenbide bat proposatzeko, ezinbestekoa dute, moduluko irakasgai desberdinen edukiengintza. Ikerketa talde bakoitzak kooperatiboki eta modu autonomoan lan egiten du, taldearen eta bertako kideen ikas-

kuntza autorregulatua ahalbidetuz. Taldeak erreferentziazko irakasle bat du prozesuan laguntzeko, bidelagun gisa jarduten dueña, bai taldea orientatzen prozesu osoan zehar, bai behatzene ere moduluko gaitasunak eskuratzentz ari diren (Gil-Galván, 2018). Hortaz, bigarren moduluko MDJren hautu metodologikoak ikasleen ikaskuntza esanguratsua eta autonomoa ahalbidetzen du unibertsitatearen IKD marko pedagogikoarekin bat eginez eta moduluko gaitasunak eskuratzeara bermatzen du.

Modulu honetan zehaztutako gaitasunak eskuratzeko, AOI metodologia erabiliz bi arazo aztertzen dituzte ikasleek lauhilekoan zehar, eta arazo bakoitzarekin gutxienez 3 aldiz bilduko dira tutorearekin. Fakultateko webgunean argitaratutako moduluko gida zehaztuta dago arazo bakoitzarekin jarraituko beharreko procedura eta taitatu beharreko txostenetara, baita bere ebaluaziorako irizpideak ere.

Laburbilduz, ikasleek arazoaren azterketarako, hipotesien finkapenerako eta konponbiderako jarraitu beharreko procedurak zenbait pausu edo etapa ditu (Morales & Landa 2004): arazoaren identifikatzea, prestakuntza-beharrizanak detektatzea, lan-egitasmoa prestatzea, erabakiak hartzea eta, azkenik, arazoaren ebaztea. Arazo jakin baten aurrean konponbide bat baino gehiago egon daiteke; horregatik, konponbide bakarra aztertzea baino, puntu horretara iristeko ikasle taldeak egin duen ibilbidea azaleatzeari garrantzia ematen zaio metakogniziona sustatze aldera.

Moduluko irakasle taldeak MDJrako landu beharreko arazoak zehazten ditu. Arazoen idatzizko azalpena irakasle taldeak prestatu arren, ernamuina profesionalek kontatutako kasu errealak dira eta hezkuntza lanbideen egunerokoarekin zerikusia dute. Orain dela hamaika urte lehen irakasle taldeari egokitu zitzaion AOI metodologiaren bitarte MDJen landuko ziren lehen arazoaren prestaketa. Horretarako gizarte hezitzaile batekin bildu ziren eta handik atera zituzten lehen arazoak eta taldeko kide batzuk AOIri buruzko formazioa jaso zuten. Metodologia honek arrazonamendu kritikoarekin erlazio zuzena duen heinean, moduluaren gai zentralarekin kokatzea ahalbidetzen zuen, hezkuntza lanbideak, hain zuzen ere. Profesional baten arazo bat errealtitate konkretu batetan kokatzea suposatzen baitu.

## Helburuak eta metodoa

Lan honen helburua Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gizarte Hezkuntza graduko bigarren moduluaren azken hamaika urte hauetako ibilbidearen analisi bat egitea izan da, moduluaren egin beharreko hobekuntzak detektatzeko eta etorkizuneko erronkak identifikatzeko. Gure helburuak erdiesteko bi informazio iturri erabili ditugu: bata, dokumentala, eta bestea, sakoneko elkarritzeta.

Azterketa dokumentalerako, hamaika urteko ibilbide honean moduluko irakasle taldeak sortutako dokumentazioa (gidak, aktak, txostenak...) erabili da baita irakasle, zein ikasleek urtero egindako ebaluazioak ere. Ikasleen ebaluazioak urtero urtero metodologia berdinarekin jaso dira: taldekatze naturala abiatantu hartuta, eztabaidea taldeak egin dira ondoko hiru galdera blokeen inguruau: i) modulua; honen alderdi positibo eta negatiboak; ii) MDJ; honen alderdi positibo eta negatiboak; iii) klase giroa, ikasleon implikazioa; alderdi positibo eta negatiboak. Ikasle talde bakoitzak bere erantzunak idatziz jasotzen zuen eta ondoren, saio berdinean, baina modu irekian, solasaldi gisa, talde handiarekin, hau da, beste ikaskide eta moduluko irakasle taldearekin, konpartitzen zuen talde txikian aipatutakoak. Saio honetatik abiatuta, eta bertan bai idatziz, bai ahoz jasotakoarekin, irakasle taldeak berreraikuntza forma zuen txostena prestatzen zuen, moduluko ikasturteko ebaluazio txostena ere bazena.

Bestalde, sakoneko bi elkarritzeta egin dira modulua abian jarri zuten bi irakasle aintzindarirri. Ikerketa kualitatiboaren ildotik elkarritzeta oso teknika erabilgarria da elkarritzetatuenei ahoztsak jasotzea ahalbidetzen baitu. Hitz egite hutsetik haratago, elkarritzetak helburu jakin bat bilatzen du (Díaz-Bravo *et al.*, 2013; Vallés, 2002). Beraz, gizarte-ikerketak elkarritzeta eta topaketek komunikazio estua eskatzen dute ikertutako pertsonenkin (Trindade, 2016).

Datuak sailkatzeko eta interpretatzeko kategoria sistema bat sortu da (Denzin, 2009). Ondoren, Nvivo (Windows) programarekin informazioa era deduktibo-induktiboa analizatu da. Hau da eginiko berrikuspen teoriotik abiatutako kategorizazio eta analisi bat proposatu da, eta gainera, diskurtsoetan berez sortu diren kategoriak gehitu dira (McMillan *et al.*, 2005). Horrenbestez, sortutako kategorizazioaren trinkotasuna bermatzeko bi

ikertzailek errebisatu dute, betiere, metodo kualitatiboak suposatzen duen zorroztasun etikoa mantenduz (Noreña *et al.*, 2012).

Era berean, testuen analisi lexikala burutu da (Larruzea-Urkixo *et al.*, 2019a, 2019b). Analisi hau burutzeko Iramuteq (0.7 alpha 2) softwarea erabili da. Programa informatiko honek testu-datuena analisi mota desberdinak ahalbidetzen ditu, hala nola, oinarrizko lexikografia (hitzen maiztasunaren kalkulua), baina aldagai anitzeko analisia ere (beheranzko sailkapen hierarkikoa, antzekotasun-analisia). Ulerterraz eta bisualki argia den hiztegiaren banaketa antolatzen du. Horrenbestez, softwareak oinatz lexikoen errepikapenaren bidez (hitzen hurrenkera), testuaren kuantifikazioa burutzen du, elkarritzetatuek partekatutako hitz lexiko ohikoenak identifikatzeko eta sailkatzea (Idoiaga *et al.*, 2015). Ildo beretik, irakasle aintzindarien diskurtsoetan sakontzeko Tgen irudia (batera osotasun gisa tratatzen diren forma edo leloak) sortu da.

## Emaitzak

Analisi dokumentaletik eta egindako elkarritzetatik kategoria ezberdinei jarraiki hurrengo ideiak eratorri ditugu.

**1. Irakasle taldea.** Modulu honetan aritu diren irakasleei arreta jarri gero, azpimarratzeko da modulua sortu eta hasi zuen irakasle taldearen garrantzia. Aipagarria da talde honek zuen hausnarketarako kultura, lanarekiko konpromezu eta hezkuntza bokazioa. Horretaz gain, elkarrekin lan egiteko ohitura zuten eta moduluari denbora asko eskaintzen zioten. Esate baterako, lehen urtean, modulua abian jartzeko, guztira hoge bat bilera egin zituzten. Halaber, esan beharra dago, lehen irakasle talde hori lan baldintzei dagokionez, nahiko talde egonkorra zela, hizkuntzaz elebakarra, unibertsitatean aspaldi sartuta, adinez nagusia eta belaunaldi berdineko eta horrek asko lagundi zuela halako lan-dinamika emankor bat sortzen. Talde hori aldatuz joan zen heinean, jubilazioen ondorioz batipat, kide berriek, gehienetan, irakasle gazte elebidunak, lan baldintza ezegonkorretan sartuta, behinolako moduluko irakasle talde finkoaren soslaia goitik behera aldatu zuten. Bizpahiru urteren buruan irakasleen belaunaldi jauzia gertatu zen, eta honek, besteak beste,

koordinazioan eta irakasle berrien moduluko harreran eragina izan du. Moduluko koordinatzailearen figura urte gutxireن buruan maiz aldatu da eta bidean, irakasleen borondatean oinarritutako transmisiorki onena egiten saiatu arren, informazioa galdu da eta lan egiteko modu batzuk pixka bat ahaztu dira. Hasierako urteetan berriz, koordinazioaren ardura modu egonkorrean pertsona batek zuenez, halako galerarik ez zen. Era berean, horrek ere eragina izan du, irakasle berriekin harrera eta lauhilabete zeharreko akopainamenduan. Izan ere, moduluko lehen urteetan hori guztia erabat bermatuta zegoen, baina urteek aurrera egin ahala, lan hori ez da modu berdinean mantendu.


Irakasleen ebaluazioei dagokionean, urte hauetan burututakoak aztertu eta gero, bi kategoriatan sailkatuko ditugu; alderdi positiboak eta hobetu beharrekoak. Alderdi positiboei dagokionean, azpimarratzeko da urtero irakasle taldearen artean dagoen giro atsegina, honekin batera elkarlana modu egokian baloratzen da baldintza hauek asko errazten dutelarik egin beharreko lana. Bestetik, moduluaren funtzionamendu egokirako, moduluan egiten den lan guztiaren dokumentazio- eta sistematizazio-lana (gidak, aktak, ebaluazioak...) ezinbestekotsat jotzen da. Honen baitan bereziki ikasle zein irakasle taldeetan burutzen diren ebaluazioen sistematizazioa azpimarratzen da bereziki, ebaluazio-tresnak berriztea, moduluaren funtzionamendurako beharrezko den informazioa biltzeko eta doikuntzak ebidentzian arabera egiteko.

Hobetzeke berriz, urtero aipatzen da irakasleon arteko koordinazioa hobetzea ikaslee eskatzen zaizkien lan eta eginkizunei begira. Honen harira eta moduluaren izaerari jarraiki, ikasgai ezberdinietan eskatzen diren lanak zenbait irakasgairen artean partekatzea proposatu izan da behin baino gehiagotan, are gehiago azken ikasturtean bi irakasgairen artean egiten hasi direnetik. Bestetik, azken bi ikasturteetan MDJren inguruko tutoretzak sustatzearen beharra antzeman da. Egia da aurkeztutako lanak ondo eginak izan direla, baina AOI metodologiak aintzat hartzen duen jarraipen lan hori ez da behar bezala burutu batipat ikasleek ez dutelako eskatu.

Azkenik, moduluaren hasieratik bertatik ikasturtero plazaratu da MDJan ebabsi beharreko arazo biak ikasturtero aldatzearen komenientzia, eta horretarako arazo bilduma bat lantzea. AOI metodologiarekin lantzeko arazoa erreala eta konplexua izan

behar da eta horretarako hasieratik Gizarte Hezitzileen Euskal-diko Elkargoko Etika eta Deontologia Batzordera heldutako kasuak abiapuntu gisa hartu ziren moduluko arazoak izateko. Izan ere, moduluko irakasle batzuk bertako kide ere baziren. Gerora, aipatutako kideak jubilatu zirenez, harreman hori neurri batean eten zen, baina gaur egun harreman hori berreskuratzea lortu da.

Horrenbestez, moduluaren ibilbidean sakontzeko aintzindariak izan diren irakasleei eginiko elkarrizketetan sakontzeko asmoz, moduluan bizitako esperientzia eta hausnarketa islatzen duten hitz guztiekin Tgen bat sortu da (irudia 1.1).



**1.1. Irudia.** Arazoa corpusaren antzekotasun lexikoaren analisiaren emaitza

Analisi horretan oinarrituta, argiago ikus daiteke nola modulu egitura sortu, martxan jarri eta garatu duten pertsonen ahotsetan *arazoa* jartzen dutela erdigunea, modulua oinarritzen den metodologíari jarraiki (AOI). Hitz honekin bat dator arazoaren eraikitzea, hau da ikasleei aurkezteko arazoa pentsatu beharra

eta era berean arazo berriak sortzeko beharra. Hortik abiatuta hitz batzuk pisu nabarmenagoa hartzen dute, hala nola, *modulu* eta *lana*. Moduluarekin lotuta agertzen da *irakasgaiak*, irakasgaietan egiten den *lana* arazoaren lanketan eta honen *ebaluazioa*. Horrenbestez, *sail* desberdinek bai irakasgaietan eta bai *moduluan* duten erlazioa agerian geratzen da. Era berean lana, bai *ikasleen* eta bai *irakasleen* *begiraden* garrantzia agertzen da estuki lotuta *gizarte hezkuntza* profesioarekin eta *formakuntzarekin*.

**2. Ikasleak.** Kasu honetan, irakasleen ebaluazioarekin egin bezala, alde batetik ikasleek modulu eta MDJren inguruan plaza-ratutako alderdi positiboak azalduko ditugu, eta bestetik, alderdi negatiboak. Alderdi positibo bezala, ikasitako eduki teorikoak maiz aipatzen dira, orokorrean hauen eta lanbidearen arteko lotura antzematen baitute. Honekin batera, oso modu positiboan baloratzen dituzte lauhilekoan zehar profesionalekin egiten diren tailer edota hitzaldiak, lanbidearen errealitatera hurbiltzeko aukera ematen dietelako. Sentsazio berdina adierazten dute MDJn lantzen diren arazoekin, jarduera esparru profesionalean aurki ditzaketen arazo errealtzat hartzen dituztelako eta beraz, guztiz baliagarri eta interesgarri.

Alderdi negatiboei dagokienean, ikasleek zenbaitzuetan irakasleen arteko koordinazio falta eta irakasle taldea trinkotzeko beharra antzeman dute. Halaber, urtero errepikatzen dute moduluau bizi izan duten lan karga handia eta eskatzen diren lan kopuru ugariak. MDJri dagokionez, sarri azaltzen dute hasiera batean nahiko galdua sentitu direla AOI metodologiarekin. Izan ere, ezin da ahaztu, irakas-ikas metodologia esperientzia oso zuzenduetatik datozena ikasleak, eta beraz, AOI metodologiarekin hasieran ikasle batzuk senti dezaketen noraeza neurri batean ulergarria dela. Horrexegatik hain zuzen ere, bi arazo lantzen dira modulu honetan, lehena, froga gisakoa, ikasleak trebatzeko erabiltzen dena, eta ebaluazio formatibo hutsa duena, eta bigarrena, kalifikatu egiten dena.

## Eztabaida eta ondorioak

Aztertutako emaitzak ikusita modu orokorrean Bigarren Moduluaren funtzionamendua egokia dela esan genezake, bai irakasle, zein ikasle taldeak positiboki baloratzen dutelarik hein handi

batean. Ikasleen ebaluazioetan ikusi izan denez, landutako metodologiak lan autonomoa sustatzeko balio du bai maila indibidualean bai taldean ere (Gil-Galván, 2018). Horrenbestez, ikasleek era egokian baloratzen dituzte proposatzen diren arazoak, erlazio zuzena baitute lanbidearekin eta etorkizun batean aurki dezaketen errealitateekin.

Bestalde, irakasleek argi ikusten dute AOI metodologia honek duen potentzialtasuna moduluauen ezarritako gaitasunak garatzeko orduan (Restrepo, 2005) baina, horretarako orain arte landutako arazoak berriut behar dira. Denboraren poderioz Gizarte Hezkuntzaren lan eremuak eta gure gaur eguneko jendartea al-daketa sakonak jasan baititu eta moduluko arazoek errealitate honekin bat egin behar dute, esparru profesional gaurkoturako hurbilketa bermatuz. Modulua jaiotzen ikusi duten irakasleek el-karriketan plazaratu zuten bezala, oso garrantzitsua da ikasleei aurkezten zaien arazoa errealitate profesionaletik ateratako iza-tea eta horretarako irakasle taldeak esparru profesionalarekin al-dez edo moldez lotura izan behar du, zorionez, hori neurri handia batean berreskuratu da. Halaber, garrantzitsua da, arazo berri bat klasean lantzen hasi baino lehen, irakasle taldeak aldez au-rretik sakon aztertu behar du, moduluko irakasgai guztiekin loturak eraiki daitezkeela bermatzeko. Beraz, modulu honetako irakasle taldeak erronka zehatz eta argi bat dauka hurrengo ikasturteari begira, AOI metodologiaren bitartez lantzen dituen bi arazoak berritzea hain zuzen ere.

Horretaz gain, ikasleen ebaluazioen analisitik zenbait erronka azaleratu dira Gizarte Hezkuntzako Bigarren Moduluari begira. Erronka hauen artean, lehenik, irakasle taldearen barne komunikazio eta koordinazio handiagoa sustatzea legoke. Izan ere, inplikatutako irakasleen arteko koordinazioak berebiziko garrantzia hartzen du ikasle taldeen arteko desberdintasunak ekidi-teko eta AOI metodologiaren nondik norakoak egoki gauzatze-ko. Horretarako co-teaching transdiziplinarrean sakontzea beharrezkoa izan daiteke (Saura *et al.*, 2020). Hasierako urteetan lauhilabete osoan zehar egiten zen, batez ere irakasle sartu berriekin, baina azkenaldian gogoa apaldu da.

Ildo beretik, ezinbestekoa da ikasleei ematen zaien informazioa eta lanen orientazioaren errebisioa, irakaslegoaren aldetik AOI metodologia era eraginkor batean gauzatu dadin, ikasleek landutako kontzeptu eta gaitasunen barneraketa emateko. Era

berean, modulua osatzen duten irakasleen eta irakasgaien lan kargen koordinazioa bada beste erronka garrantzitsu bat ikasleen denbora falta eta lan pilaketa ekiditeko.

Azkenik, aipatzeko da azken urteetan moduluko irakasleen artean eman den belaunaldi aldaketa eta honek suposatzen duen haustura lan egiteko metodologian (Molina *et al.*, 2018). Dena den, oraingo talde berriak, gehienak irakasle berriak, nahiz eta gazteak eta ezegenkorraak izan, bai moduluan bai lan kontratuari dagokionez, orain arte egin izan den lanaren dokumentazio bilketa eta sistematizazio lanarekin jarraitzeko asmo sendoa du. Ezinbestekoa baita moduluaren funtzionamendu eta jarraipen egoki baterako, lanerako sortutako dokumentazioaren eta ebaluazioen sistematizazioarekin jarraitzea, taldearen lan egiteko moduari eusteko eta bertan metatutako jakintzaren transmisioa bermatzeko, modulu eta MDJren gaineko etengabeko hobekuntzak eta doikuntzak egitea ahalbidetuko duelako, irakasle taldea ezegenkorra izan arren.

## Erreferentziak

- Alonso, I. (2015). Cambios en la identidad y cultura docente en procesos de innovación educativa en la Educación Superior. Estudio de un caso (doktorego tesiak). Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU.
- Amez, A., Arandia, M., Apodaca, P., Ávila, A., Echevarría, M. A., Fernández, L., Gogeaskoetxea, A., Gonzalez, V., Larrazabal, L., Maguregi, G., Martínez, I., Otaño, J., Uriarte, J., Uskola, A. eta Vasconcelos, M. (2008). Mirando al futuro de la formación inicial en Educación Social: pinceladas sobre un proceso colaborativo entre universidad y el sector profesional. *Gizaberri*, 1, 13-16.
- Arbizu, F., Bilbao, J., Camara, A., Fernández, L., Martínez, I. eta Monasterio, M. (2012). Modelo de guía para grados universitarios con estructura modular. *REDU. Revista de Docencia Universitaria*, 10 (1), 313-341.
- Denzin, N. K. (2009). The elephant in the living room: or extending the conversation about the politics of evidence. *Qualitative Research*, 9 (2), 139-160. <https://doi.org/10.1177/1468794108098034>
- Díaz-Bravo, L., Torruco-García, U., Martínez-Hernández, M. eta Varela-Ruiz, M. (2013). La entrevista, recurso flexible y dinámico. *Investigación en Educación Médica*, 2 (7), 162-167.

- Gil-Galván, R. (2018). El uso del aprendizaje basado en problemas en la enseñanza universitaria. Análisis de las competencias adquiridas y su impacto. *Revista Mexicana de Investigación Educativa*, 23 (76), 73-93.
- Idoiaga, N., Gil De Montes, L. eta Valencia, J. F. (2015). Communication and representation of risk in health crises: the influence of framing and group identity. *Revista de Psicología Social: International Journal of Social Psychology*, 31(1), 59-74. <https://10.1080/02134748.2015.1101313>
- Larruzea-Urkixo, N., Cardeñoso, O. eta Idoiaga, N. (2019a). Emozioak unibertsitateko ikasketa prozesuen ardatz: Lehen Hezkuntzako Graduaren kasua. *Tantak*, 31 (1), 177-194.
- Larruzea-Urkixo, N., Cardeñoso, O. eta Idoiaga, N. (2019b). El alumnado del Grado de Educación ante las tareas universitarias: emoción y cognición. *Educación XXI*, 23 (1), 197-220.
- López i Zaguirre, R. eta Quetglas, B. (2014). Bolonia y los educadores y educadoras sociales. La visión del colectivo profesional. *RES*, 19. <http://www.eduso.net/res/winarcdoc.php?id=381>
- McMillan, J. H., Schumacher, S. eta Baides, J. S. (2005). *Investigación educativa: una introducción conceptual*. Pearson.
- Molina, F., Casado Gual, N. eta Stončikaitė, I. (2018). University stakeholders, intergenerational relationships and lifelong learning: a European case study. *Educational Gerontology*, 12 (44), 744-752.
- Morales, P. eta Landa, V. (2004). Aprendizaje basado en problemas, *Theoria*, 13 (1), 145-157.
- Noreña, A. L., Alcaraz-Moreno, N., G., Rojas, J. G. eta Rebolledo-Malpica, D. (2012). Aplicabilidad de los criterios de rigor y éticos en la investigación cualitativa. *AQUICHAN*, 12, (3), 263-274.
- Restrepo, B. (2005). Aprendizaje basado en problemas (ABP): una innovación didáctica para la enseñanza universitaria. *Educación y Educadores*, 8, 9-20.
- Saura, S., Barrera, J., Álvarez, Y., Blanco-Romero, A. eta Ritondale, E. (2020). *Co-teaching transdisciplinario experiencias docentes*. Universidad Autónoma de Barcelona.
- Trindade, V. A. (2016). Entrevistando en investigación cualitativa y los imprevistos en el trabajo de campo: de la entrevista semiestructurada a la entrevista no estructurada. In P. Schettini eta I. Cortazzo (koord.). Técnicas y estrategias en la investigación cualitativa, (18-32 orr). Editorial de la Universidad de la Plata.
- Vallés, M. (2002). Entrevistas cualitativas. Cuadernos metodológicos. CIS.

# Índice

Prólogo .....	11
---------------	----

## BLOQUE I. INNOVACIONES EDUCATIVAS EN LA ESTRUCTURA MODULAR

1. Gizarte Hezkuntza Graduko bigarren moduluko ikasle eta irakasle taldearen ebaluazioen azterketa: egungo kezkak eta aurrera begirako erronkak .....	15
Sarrera .....	15
Helburuak eta metodoa .....	19
Emaitzak .....	20
Eztabaida eta ondorioak .....	23
Erreferentziak .....	25
2. El módulo 2 de Educación Primaria: realidades y necesidades desde el análisis documental .....	27
Introducción .....	27
El Grado de Educación Primaria vertebrado desde un planteamiento modular .....	27
El módulo 2 de Educación Primaria: escuela y currículum. Las situaciones de consumo y el papel del profesorado .....	28
Método .....	29
Objetivos e instrumentos .....	29
Resultados .....	31
Discusión y conclusiones .....	33
Referencias bibliográficas .....	35

<b>3. Una experiencia de innovación educativa en Educación Superior basada en casos reales desde una mirada de género y exclusión social .....</b>	39
Introducción .....	39
Método .....	40
Descripción del contexto y de los participantes .....	40
Actividad interdisciplinar modular (AIM) .....	41
Instrumentos .....	42
Procedimiento .....	42
Profesorado universitario. Problemas reales, interacción en la complejidad/diversidad .....	43
Alumnado universitario .....	44
Profesionales en centros de prácticas .....	45
Resultados .....	45
Conclusiones/Prospectiva .....	47
Referencias bibliográficas .....	48
<b>4. UBE: Hezkuntza komunitatea elkareraginean .....</b>	<b>49</b>
Sarrera .....	49
Metodoa .....	51
Parte hartzaleak .....	51
Datu-bilketa .....	51
Datuen analisia .....	52
Emaitzak eta eztabaidea .....	53
Unibertsitatetik eskoletara: teoria eta errealtitatea uztartzen .....	53
Ikasleak erdigunean, ikasketa ardatz: .....	54
Testu-analisia eta azterketa kuantitatiboa .....	55
Ondorioak eta etorkizuneko lana .....	58
Erreferentziak .....	59
<b>5. Dinámicas de trabajo intergrupales como estrategia para la construcción de conocimiento. Un acercamiento desde el trabajo interdisciplinar modular .....</b>	<b>61</b>
Introducción .....	61
Marco teórico .....	62
Método .....	64
Objetivos .....	64
Muestra .....	64
Procedimiento de recogida y análisis de datos .....	65
Resultados del análisis de las guías docentes TIM .....	65

Primer objetivo .....	65
Segundo objetivo .....	66
Discusión y conclusiones .....	67
Referencias bibliográficas .....	69
<b>6. Sustainable development goals in the English classroom: tell me a different story .....</b>	<b>71</b>
Introduction .....	71
State of the question .....	72
Methodology .....	73
Objectives .....	73
Context and sample .....	74
Instruments .....	74
Data collection and analysis .....	75
Results .....	75
Discussion and conclusions .....	78
References .....	79
<b>7. El rol del profesorado novel en la tutorización de trabajos modulares con metodologías activas.</b>	
Dificultades, retos y alternativas .....	81
Introducción. Aprendizaje basado en problemas: el rol del profesorado en su labor de tutorización .....	81
Método .....	83
Resultados .....	84
Discusión y conclusiones .....	86
Referencias bibliográficas .....	88
<b>8. ¿Qué objetivos de desarrollo sostenible elige el profesorado de Educación Infantil en formación para trabajar mediante actividades fuera del aula? .....</b>	<b>91</b>
Introducción .....	91
Metodología del TIM «Salidas al exterior del aula de Educación Infantil» de la Facultad de Educación de Bilbao .....	95
Método .....	96
Objetivos .....	96
Población y muestra .....	96
Instrumento .....	97
Procedimiento de recogida y análisis de datos .....	97
Resultados .....	97
Discusión y conclusiones .....	98
Referencias bibliográficas .....	100

## BLOQUE II. INNOVACIONES EN LAS ASIGNATURAS

9. El uso de dibujos, maquetas y <i>role-play</i> como estrategias innovadoras para desarrollar el pensamiento sistémico en torno al sistema digestivo . . . . .	105
Introducción . . . . .	105
Método . . . . .	106
Objetivos . . . . .	106
Población y secuencia . . . . .	107
Instrumento . . . . .	107
Procedimiento de recogida y análisis de datos . . . . .	108
Resultados . . . . .	109
Evolución en la dimensión estructural (componentes . . . . .	109
Evolución en la dimensión «Mecanismos» . . . . .	110
Evolución en la dimensión «fenómeno» . . . . .	111
Discusión y conclusiones . . . . .	111
Referencias bibliográficas . . . . .	114
10. La <i>performance</i> musical: un medio para integrar aprendizajes en Educación Primaria . . . . .	117
Introducción . . . . .	117
Método . . . . .	119
Objetivos . . . . .	119
Participantes . . . . .	119
Desarrollo del proyecto . . . . .	119
Resultados . . . . .	121
Discusión y conclusiones . . . . .	122
Referencias bibliográficas . . . . .	123
11. IDAT: talde laneko idatzian banakako ekarpenetan begira . . . . .	127
Sarrera . . . . .	127
Metodoa . . . . .	129
Emaitzak . . . . .	130
Eztabaidea eta ondorioak . . . . .	136
Erreferentziak . . . . .	138
12. Competencia digital y espacios <i>maker</i> : construir pensamiento en el diseño de productos asociados a retos de aprendizaje . . . . .	141
Introducción . . . . .	142
Pensamiento de diseño o <i>design thinking</i> . . . . .	142

Cultura <i>maker</i> en educación .....	143
Competencia digital docente .....	144
Método .....	145
Objetivos .....	145
Población y muestra .....	146
Propuesta educativa .....	146
Instrumento .....	148
Resultados .....	148
Discusión y conclusiones .....	149
Referencias bibliográficas .....	150

### BLOQUE III. INNOVACIONES EN TFG, TRANSFERENCIA Y COLABORACIÓN CON EL ENTORNO

<b>13. De la universidad a la Educación Secundaria. El poder de la divulgación científica .....</b>	<b>155</b>
Introducción .....	155
Un estudio realizado en la Facultad de Educación de la Universidad del País Vasco .....	156
Divulgación y contacto con el Instituto Unamuno de Bilbao .....	157
Método .....	158
Objetivos .....	158
Población y muestra .....	158
Procedimiento .....	158
Procedimiento de recogida y análisis de datos .....	159
Resultados .....	160
Discusión y conclusiones .....	162
Referencias bibliográficas .....	163
<b>14. Formación interdisciplinar con alumnado universitario para una educación de calidad que promueva la mejora y transformación social .....</b>	<b>165</b>
Introducción .....	165
Método .....	167
Objetivos .....	167
Participantes .....	168
Estudio de caso .....	168
Fases de implementación .....	169
Resultados y conclusiones .....	171
Referencias bibliográficas .....	173

15. Haur eta gazte literatura eta garapen iraunkorrerako helburuak . . . . .	175
Sarrera . . . . .	175
Helburuak . . . . .	176
Metodoa . . . . .	176
Literaturaren dimentsio bikoitza . . . . .	178
Literaturaren dimentzio bikoitza lantzen IKD i3 metodologien bitartez Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Graduetan . . . . .	178
Garapen Iraunkorrerako Literaturaren gidak . . . . .	182
Ondorioak . . . . .	183
Erreferentziak . . . . .	184
16. GrALa Plazara! Jendartearekin konprometitutako GrALak . . . . .	187
Sarrera . . . . .	187
Gradu Amaierako Lana . . . . .	188
GrALa plazara! Bilboko Hezkuntza Fakultateko ekimena . . . . .	190
Eztabaida eta Ondorioak . . . . .	196
Etorkizunerako lerroak . . . . .	198
Erreferentziak . . . . .	198
17. Creación del proyecto de radio comunitaria ODSirratia para la transformación ecosocial . . . . .	201
Introducción . . . . .	201
Educación ecosocial . . . . .	201
La radio comunitaria . . . . .	203
Metodología . . . . .	205
Objetivos . . . . .	205
Primera fase (octubre-diciembre 2021) . . . . .	205
Segunda fase (enero 2022) . . . . .	206
Tercera fase (febrero a mayo de 2022) . . . . .	207
Cuarta fase (junio a septiembre de 2022) . . . . .	207
Resultados . . . . .	207
Discusión y conclusiones . . . . .	208
Referencias bibliográficas . . . . .	209
18. Educación Infantil 3: cómo cambiar la concepción sobre la sostenibilidad del alumnado mediante trabajos interdisciplinares . . . . .	211
Introducción . . . . .	211

Educación Infantil 3: construyendo una educación de calidad desde la sostenibilidad . . . . .	213
Ejecución del proyecto Educación Infantil 3 . . . . .	214
Evaluación del proyecto Educación Infantil 3 . . . . .	215
Método . . . . .	215
Participantes . . . . .	215
Instrumento . . . . .	215
Análisis de datos . . . . .	216
Resultados . . . . .	216
Discusión y conclusiones . . . . .	218
Referencias bibliográficas . . . . .	220
<b>19. STEAM: trabajando las competencias clave desde la equidad a través del arte colaborativo . . . . .</b>	<b>223</b>
Introducción . . . . .	223
STEAM y arte colaborativo . . . . .	224
Competencias clave . . . . .	226
Método . . . . .	227
Objetivos . . . . .	227
Población y muestra . . . . .	228
Instrumento . . . . .	228
Resultados . . . . .	229
Discusión y conclusiones . . . . .	230
Referencias bibliográficas . . . . .	231
<b>20. Los trabajos finales tutelados como herramienta de avance en la protección de la infancia: una experiencia del posgrado «Deporte, Educación y Convivencia» . . . . .</b>	<b>233</b>
Introducción . . . . .	233
La protección de la infancia en el deporte . . . . .	234
LOPIVI y delegado/a de protección . . . . .	237
El posgrado «Deporte, Educación y Convivencia» . . . . .	239
Los trabajos finales tutelados como herramienta de desarrollo . . . . .	242
Conclusiones y futuras líneas de trabajo . . . . .	243
Referencias bibliográficas . . . . .	244

Si desea más información  
o adquirir el libro  
diríjase a:

[www.octaedro.com](http://www.octaedro.com)

# **Estructura modular, metodologías activas y compromiso social en innovación educativa universitaria**

La experiencia de la Facultad de Educación de Bilbao, UPV/EHU (2011-2021)

Por medio del Congreso Internacional de Innovación Educativa en Educación Superior, que se celebró en abril de 2022 en la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU), se conmemoró el décimo aniversario de la implantación de un modelo de innovación docente interdisciplinar e integrado en los títulos de Educación de las tres facultades de Educación de la UPV/EHU.

En este contexto, que podemos definir como exitoso, se reúnen en esta monografía una serie de trabajos revisados por pares que ejemplifican las líneas maestras de este proyecto de innovación docente, cuyos objetivos son difundir las diferentes innovaciones educativas impulsadas dentro y fuera de los módulos en las facultades de Educación de la UPV/EHU y poner en valor la colaboración entre la universidad y los agentes socioeducativos a través de la innovación social y educativa basada en una estructura modular e interdisciplinares.

**Asier Romero.** Profesor titular en el Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. Exdecano de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

**Israel Alonso.** Profesor en el Departamento de Didáctica y Organización Escolar de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

**Ana Urrutia.** Profesora en el Departamento de Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

**Naiara Berasategi.** Profesora agregada en el Departamento de Didáctica y Organización Escolar de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

**Monike Gezuraga.** Profesora agregada en el Departamento de Didáctica y Organización Escolar de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

**Nahia Idoiaga.** Profesora agregada del Departamento de Psicología Evolutiva y de la Educación. Vicedecana de Coordinación de Grado, Postgrado y Proyectos Fin de Carrera de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

